

Hilabete honetako gogoetak Arizmendiarrietaren berezko balio bati egiten dio aipamena: **ekintza**.

Izan ere, sarritan definitzen da Don Jose Maria “ekintzako gizon” moduan, eta nabarmentzen dugun gogoeta bere harribitxirik esanguratsueneko bat da:

## **Ideia edo hitz ona ekintza bihurtzen dena da.** (p165)

Lotutako beste gogoeta batzuk:

Arrangurarik ez, ekintzak bai. (p231)

Hobe da huts egitea ezer ez egitea baino, Gainera, huts eginda, azkenean asmatzen ikasten da. (p241)

Hobeto ez bizitzearen arrazoia ez dugu jakintza falta, egite falta baizik. (p396)

Pertsonak ez ditu bere pasioak baliogabetu behar, hezi baizik. Pertsonak ez ditu alde batera utzi behar hobetzeko nahiak, horiek diziplinatu edo hierarkizatu baizik. Pertsona ez da kooperatibara iritsi behar kontenplazioan egoteko, baizik eta bere ekintza kanalizatu eta uztartzeko, bere sakrifizioen eta konpentsazioen testuinguruan. C38- 1963/10

Ekintzaren garrantzia gutxietsi gabe, Don Jose Mariak ideien eta pentsamenduaren garrantzia gogorarazten digu aipu hauetan:

Ideiak eta ildoak —behintzat horietako asko— onak izan daitezke, bai, baina egintzak, esperientzia, ez dira gutxietsi behar, batez ere esperientzia horrek ideiak eta ildoak justifikatzen dituzten balioei erantzuten dienean. (p410)

Mundu iraultzailea buru-belarri sartuta, alderdi guztietan; zorabiatzeko moduko abiaduran biraka, bata bestearen atzetik datozen ideia, gertaera, aurkikuntza eta inpresioen zurrunbilo ikaragarri batean, horiek hobeto edo okerrago digeritzeko astirik gabe ere, gure munduko gizakion ez dugu denborarik, berez, ezin gara pentsatzen jarri...

Aitzitik, adiskide maitea, pentsatzea beharrezkoa da, eta pentsatzea ezinbestekoa da, funtsezkoa gizakiarentzat.

C33- 1963/05